

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

MOREDA ARABAKO UDALA

Administrari laguntzaile plaza bat, erabilera askotarako behargin plaza bat eta garbitzaile plaza bat aldi baterako egonkortze erregimenean betetzeko onartutakoen behin-behineko zerrenda onesten duen dekretua argitaratzea

Prozesu honetan onartu eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda: iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespeneko deialdia, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrien ondoriozkoa, administrari laguntzaile, zerbitzu askotarako behargin eta garbitzaile plazei dagokiena.

Alkatearen azaroaren 22ko 126 zenbakiko Dekretuaren bidez, erabaki hau hartu da:

Ikusi dira 2022ko abenduaren 23ko ALHAOn (147. zk.) argitaratutako oinarri orokorrak eta espezifikokoak eta deialdiaren laburpen bat (2024ko abuztuaren 21eko BOE, 202. zk.). Horiek horrela, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean ezarritakoari jarraituz.

Hautaketa prozesu horretan eskaerak aurkezteko hoguei egun balioduneko epea amaitu ondoren eta horrekin batera aurkeztutako agiriak aztertu ondoren, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1985 Legearen 21.1.h) artikulua arabera ditudan eskumenez baliatuz,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Onestea Moreda Arabako Udalean iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa prozesuan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda. Hona hemen:

ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA

IZEN-ABIZENAK	NANA	ONARTUA BAZTERTUA	ARRAZOIA (1)
Eva Larión Navajas	165****3M	Onartua	
Raquel Balbás Aguilar	712****3L	Baztertua	A

(1) Baztertzeko arrazoiak: A. Ez du eskatutako hizkuntza eskakizuna.

GARBITZAILEAK

IZEN-ABIZENAK	NANA	ONARTUA BAZTERTUA	ARRAZOIA (1)
María Rosario Peláez Mosquera	117****4U	Onartua	

ZERBITZU ASKOTARAKO BEHARGINA

IZEN-ABIZENAK	NANA	ONARTUA BAZTERTUA	ARRAZOIA (1)
Alfredo Martínez Morales	1627****T	Onartua	
Iñaki Sánchez Santo Domingo	16****60Q	Onartua	

Bigarrena. Ebazpen hau iragarki taulan eta Moreda Arabako Udalaren egoitza elektronikoan erakusgai jartzeko agintzea.

Hirugarrena. Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda ALHAOn argitaratzea. Bost egun balioduneko epea emango da, ebazpen hau ALHAOn argituratzen denetik hasita, baztertzea eragin duten akatsak edo omisioak zuzentzeko, edo egokitzat jotzen diren erreklamazioak aurkezteko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Laugarrena. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da zuzenean. Erreklamazioak egonez gero, onartu edo baztertuko dira, beste ebazpen baten bidez. Horrek behin betiko zerrendak onetsiko ditu eta aipatutako bitartekoetan argitaratuko da.

Bosgarrena. Ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hileko epean, onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Dena dela, egokitzat jotzen den beste edozein errekurtsu ere aurkeztu ahal izango da. Horren aurretik, egun beretik hasita hilabeteko epean, aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio alkateari. Dena den, ezingo dira bi errekurtsuak aldi berean egin.

Moreda Araba, 2024ko azaroaren 22a

Alkatea

MARA GARCÍA DÍAZ DE CERIO